| | |
|---|---|
| **2017KO ABENDUAREN 27AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 27 DE DICIEMBRE DE 2017.** |
| ============================ | ============================ |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|---|---|
| **ALKATEORDEAK** | **TENIENTES DE ALCALDE** |

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
José Luis Landa Arteche (PSE-EE (PSOE))

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |

Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Amaia Agirre Muñoa (EAJ/PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ/PNV)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Miguel Ibabe Botella (PP)
Susana De Cos Yañez (PP)
Paula Amieva Clemente (GUK)
Susana Andollo González (GUK)
Francisco Enrique Prada Olleta (GUK)
Enrique Olaso García (GUK)

Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Nerea Guijarrubia García (EH BILDU)
Teresa Escalante Reina (PSE-EE (PSOE))
Santiago Sainz Robles (C'S)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta alkate-lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako goizeko bederatzietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Gai-zerrendaren inguruko eztabaida hasi aurretik, Nerea Guijarrubiak hitza hartu du jakinarazteko EH Bildu udal-taldea osoko bilkuratik joango dela. Gogorarazi du EH Bilduk legegintzaldiaren hasieran eskatu zuela osoko bilkurak arratsaldez egiteko, herritarren parte-hartzea sustatzeko xedez. Gobernu-taldeak erabaki du osoko bilkura hau goizez deitzea eta herritarren parte-hartzea murriztea; bere mesederako egin du soilik, ez baitago inolako arrazoirik gaur, laneguna izanda, ordutegia aldatzeko. Era berean, gogorarazi du zenbait zinegotziek udaleko lana udalaren kanpoko lanarekin bateratzen dutela eta ordutegi-aldaketak kalte egiten diela. Arratsaldez lan egin nahi ez duten batzuk mesedetu nahi dira soilik. Jaiegun hartu nahi duena errespetatzen du, baina betiere herritarren parte-hartzearen eta beste udalkide batzuen

Previamente a iniciar el debate de los puntos del orden del día interviene Nerea Guijarrubia para anunciar que el grupo municipal de EH Bildu se a ausentar del Pleno. Recuerdan que EH Bildu pidió al inicio de la legislatura que los plenos se celebraran a la tarde para potenciar la participación ciudadana. El equipo de gbobierno ha decidido convocar este pleno a la mañana reduciendo la participación ciudadana y lo hace solamente en beneficio de sus propios intereses ya que no hay razón para que el día de hoy, que es laborable, se tenga que cambiar el horario. Recuerda también que además hay concejales que compatibilizan su labor corporativa con trabajo fuera del ayuntamiento a los que el cambio horario les perjudica. Se busca únicamente beneficiar a algunos que no quieren trabajar a la tarde. Respeta al que quiera coger fiesta pero

eskubideen kaltetan ez bada. Horrenbestez, alkatearen erabakia jardun autoritarioa dela deritzo. EH Bildu lanean dabil gaur egun, eta horren inguruan lan egiten jarraituko dute bulegoetan.

no en perjuicio de la participación ciudadana y de los derechos de otros corporativos, por lo que la decisión del Alcalde le parece un ejercicio autoritario. EH Bildu está trabajando el día de hoy y seguirán trabajandolo en sus oficinas.

Esku-hartzea amaitu ostean, osoko bilkuren aretotik joan dira Nerea Guijarrubia eta Ibon Rodríguez.

Tras finalizar la intervención abandonan el salón de sesiones Nerea Guijarrubia e Ibon Rodríguez.

Alkateak erantzun dio adieraziz EH Bilduk egindako adierazpenek ez dutela printzipio demokratikoa errespetatzen; izan ere, osoko bilkuraren ordua aldatzeko erabakia talde guztiei kontsultatu ostean eta Osoko Bilkuraren gehiengoaren babesa lortzean hartu zen, erabakiaren alde agertu baitziren EAJ, PP, PSE-EE eta Ciudadanos. Horrenbestez, ez dago inolako autoritarismorik alkateak hartutako erabakian; horrelakorik egotekotan EH Bilduren aldetik da, ez baitu gehiengoaren nahia onartu. Azpimarratu du 2015eko ekainaren 30eko Osoko Bilkuraren erabakiaren babesean hartu dela erabakia. Erabaki horretan adierazi zen ahal bada bilkurak zein egun eta ordutan egingo diren; "ahal bada" terminoak esan nahi du salbuespenak egon daitezkeela. Ordua aldatzeko erabakia bat dator kargu publikodunen duintasun-printzipioarekin; izan ere, laneko bizitza familiakoarekin uztartzeko eskubidea dute. Halaber, adierazi du kargu publikodun guztiek beren kargua burutzeko eskubidea dutela eta horretarako baimena dutela enpresan; eskubide hori lorpen demokratikoa izan da herritarrak kargu publikoetara eta politikara heltzea ahalbidetzeko. Bere ustetan, EH Bilduren jokabidea kaltegarria da eskubidea mantentzeko. Osoko bilkurak arratsaldez egin eta

El Alcalde contesta que las manifestaciones realizadas por EH Bildu no respetan el principio democrático ya que la decisión del cambio de hora de la sesión se adoptó tras consultar a todos los grupos y tras tener el respaldo mayoritario del Pleno ya que apoyan la decisión el PNV, PP, PSE-EE y Ciudadanos, por lo que no se da ningún autoritarismo en la decisión del Alcalde sino que en todo caso el autoritarismo se produce por parte de EH Bildu que no admite la mayoría. Recalca que la decisión se ampara plenamente en el acuerdo plenario de 30 de junio de 2015 en el que se indicaban las fechas y horas que se celebraría preferentemente la sesión y la existencia del término preferentemente significa que puede haber excepciones. La decisión de modificar la hora responde a la defensa de un principio de dignidad de los cargos públicos que tiene derecho a compaginar su vida laboral con su vida familiar, indicando también que todos los cargos públicos tienen derecho al ejercicio de sus cargos por lo que disponen de permiso en sus correspondientes empresas, derecho este que ha sido un logro democrático para posibilitar el acceso de la ciudadanía a los cargos públicos y a la política. Estima que la posición que está teniendo EH Bildu hace un flaco favor

ordu txikietan amaitzen direnean, mezu negatibo bat bidaltzen zaie herritarrei udalkideek, langileek eta herritarrek familiako bizitza lanarekin uztartzeko duten gaitasunari dagokionez. Hori dela eta, familia eta lan-bizitza bateratzeari buruz EH Bilduk duen kontzeptua kritikatu du. Ez da onartuko udalkideetako inoren profesionaltasuna eta lanarekiko konpromisoa zalantzan jartzea, errespetu-falta dela jotzen baitu; horrez gain, EH Bildu taldekoak ez diren udalkideek egindako lan-orduak eta agenda alderatzeko agindeia egin die. Ez du zalantzan jartzen EH Bilduko udalkideen profesionaltasuna, baina ez du onartuko haiek gainerako udalkideena eztabaidatzea. Aditzera eman du salbuespena dela. Urte osoan mantendu dira bilkurak arratsaldez egiteko orduak, baina uste du egokia dela bilkuren ordu-aldaketari buruz hausnartzea adierazitako guztia aintzat hartuta; edonola ere, gehienek babestu behar dute hartzen den erabakia.

al mantenimiento de ese derecho. Opina que con la celebración de los plenos a la tarde, que finalizan a altas horas, no se envía un mensaje positivo a la ciudadanía para la conciliación de la vida familiar y laboral de los corporativos, de los empleados y de los vecinos, por lo que critica el concepto de conciliación de la vida laboral y familiar de EH Bildu. No va a consentir que se cuestione la profesionalidad y el compromiso laboral de ningún corporativo ya que le parece una falta de respeto y les emplaza a contrastar agenda y horas trabajadas por parte de los corporativos que no son del grupo EH Bildu. No cuestiona la profesionalidad de los corporativos de EH Bildu pero no admite que ellos cuestionen la del resto de los corporativos. Manifiesta que es una excepción. En un año entero que se han mantenido las horas de celebración de la tarde, pero que estima oportuno abrir una reflexión acerca de si se deben modificar dichas horas de celebración teniendo en cuenta lo que se ha indicado y que en todo caso la decisión que se pueda adoptar deberá contar con amplia mayoría.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**210.- GETXOKO UDALBALTZAK 2017KO AZAROAREN 29AN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

**210.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 29 DE NOVIEMBRE DE 2017.**

2017ko azaroaren 29an Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren

Se aprueba por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada

akta aho batez onestea.

por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 29 de noviembre de 2017

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA**

**211.- 4841/2017 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA: KREDITUA PRESTATZEAREN BIDEZ EGINDAKO AURREKONTUAREN ALDAKETARI BURUZKOA.**

Proposamena irakurri ondoren, Susana Andollok hartu du hitza; jakinarazi du GUK taldeak jarduera mesedetzeko hainbat neurri proposatu dituela eta ontzat jotzen dutela udalak Lanbiderekin lankidetzan egin beharreko kontratazioa.

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau jakitun egon:

4841/2017 zenbakidun Dekretua 229.810,80 euroko zenbatekoarekin. 2017/02F kreditua gaitzea. Lanbide 2017/2018.

**211.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO 4841/2017 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Tras dar lectura a la propuesta interviene Susana Andollo para manifestar que desde GUK se han planteado diferentes medidas para favorecer el empleo y ven con buenos ojos la contratación que se realiza por el ayuntamiento en colaboración con Lanbide.

A propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

Decreto nº 4841/2017 por un importe de 229.810,80 euros. Habilitación de crédito 2017/02F. Lanbide 2017/2018.

**212.- 5223/2017 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA:: TRANSFERENTZIAZ BALIATURIK AURREKONTUA ALDARAZI.**

Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen,

**212.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO Nº 5223/2017 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

A propuesta de la Comisión

Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta,

Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara,

Transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau jakitun egon:

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante el

5223/2017 zenbakidun Dekretua 8.484,00 euroko zenbatekoarekin. 2017/18 kreditu-transferentzia. 2018ko jaietarako diru-laguntzak.

Decreto nº 5223/2017 por un importe de 8.484,00 euros. Transferencia de crédito 2017/18. Subvenciones para fiestas 2018.

**213.-JESUSEN BIHOTZA UDAL EGOITZAN EGOTEAGATIKO ETA LAGUNTZA JASOTZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.**

**213.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR ASISTENCIA Y ESTANCIA EN LA RESIDENCIA MUNICIPAL "SAGRADO CORAZÓN"**

Proposamena irakurri ostean, Susana Andollok hartu du hitza; jakinarazi du GUK taldearen ustetan gobernu-taldeak oposizioa izan behar duela herritarrentzako onuragarriak diren akordioetara heldu ahal izateko, kasu honetan gertatu bezala, proposamenak hobetu dituzten alegazioak aurkeztea ahalbidetu baita. Hala eta guztiz ere, bere ustez, Gizarte Zerbitzuen batzordeak ez die beharrezkotzat jotzen duten informazio guztia helarazten, eta horregatik abstenituko dira.

Tras dar lectura a la propuesta interviene Susana Andollo para manifestar que a GUK le parece que el equipo de gobierno debe contar con la oposición para llegar a acuerdos beneficiosos para la ciudadanía por la trascendencia que tienen, como ha ocurrido en este caso, en la que se ha posibilitado plantear alegaciones que han mejorado las propuestas aunque cree que en la comisión de Servicios Sociales no se les facilita toda la información que creen necesaria, por lo que se abstendrán.

Santiago Sainz jaunak jakitera eman du bere taldea lehenengoa izan zela tasak kobratzeari buruzko proposamen bat aurkezten. Bere ustetan, gobernu-taldeak egindako proposamenak lehen aurkeztutakoa hobetuko luke, baina ez zaio gustatzen, Ciudadanos taldeak egindako proposamena tasa txikiagoei buruzkoa baitzen; hortaz, ez dute proposamenaren alde egingo.

Santiago Sainz indica que su grupo fue el primero en presentar una propuesta para el cobro de las tasas. Le parece que la propuesta del equipo de gobierno mejora la inicial pero no se siente a gusto con la misma ya que la propuesta planteada por Ciudadanos era de unas tasas más reducidas, por lo que no apoyarán la propuesta.

Proposamena bozkatu eta emaitza hau egon da: aldeko 11 boto (EAJ eta PSE-EE) eta 10 abstentzio (PP, GUK, Ciudadanos).

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Jesusen Bihotza Udal Egoitzan egoteagatiko eta laguntza jasotzeagatiko tasa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketa behin-behinean onestea. Aldaketa horrek alderdi hauexek hartzen ditu barne:

1. Eguneko arreta-zerbitzua emateagatiko tasa berria onestea. Hala, zerbitzuaren hileko kuota hileko familia-errenta estandarraren portzentaje bat izango da, betiere baremo-taula honen arabera (gehieneko kuota 300 eurokoa izango da):

500,00 euroraino: % 10
501,00 eurotik – 800,00 eurora: % 15
801,00 eurotik – 1.000 eurora: % 20
1.001 eurotik aurrera: % 25

2. Egoitzan egon eta laguntza jasotzeagatiko tasa onestea; modalitate hauek bereiziko dira:
a) I. graduko mendekotasuna duten pertsonak, etxebizitza komunitarioa,
2001-12-31 baino lehen sartu diren pertsonak: 692,55 euro hilean
2002-01-01etik aurrera sartu diren pertsonak: 2.096,25 euro hilean
b) II-III. graduko mendekotasuna duten pertsonak (iraungi beharreko tarifa; 2017-04-01a baino lehen udal-plaza zuten erabiltzaileei aplikatu beharrekoa): 2.465,00 euro hilean

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 10 abstenciones, PP, GUK, Ciudadanos.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

PRIMERO.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por asistencia y estancia en la Residencia Municipal "Sagrado Corazón". Dicha modificación se refiere a los siguientes aspectos:

1. Aprobar la nueva tasa por la prestación del servicio de atención diurna, en el que la cuota mensual sea un porcentaje de la renta familiar estandarizada mensual de acuerdo con la siguiente tabla baremo y siendo la cuota máxima de 300 euros:

Hasta 500,00 euros: 10%
De 501,00 a 800,00 euros: 15%
De 801 a 1.000 euros: 20%
De 1.001 euros en adelante: 25%

2. Aprobar la tasa por asistencia y estancia, distinguiendo entre:
a) Personas con grado de dependencia I, vivienda comunitaria,
Personas ingresadas antes del 31.12.2001: 692,55 Euros/mes
Personas ingresadas desde el 1.01.2002: 2.096,25 Euros/mes

b) Personas con grado II-III de dependencia, (tarifa a extinguir, aplicable a usuarios que venían ocupando plaza municipal antes del 1/04/2017): 2.465,00 Euros/mes

3. Behin-behineko egonaldien tasa kentzea.

4. Ordenantzaren 9. artikulua aldatzea. Hortaz, "baliabide nahikorik ez izateagatik ez ordaindutako eta sortutako tasetarako berme berezia" egoitzan egon eta laguntza jasotzeko zerbitzuari aplikatuko zaio soilik; horrenbestez, kanpo geratuko dira eguneko arreta-zerbitzua eta gainerako tasak.

5. Hileko familia-errenta estandarra kalkulatzeko metodoa ezartzea.

6. Ordenantzaren titulua aldatzea, honela deituko da aurrerantzean: JESUSEN BIHOTZAREN UDAL EGOITZAN EMANDAKO ZERBITZUEN TASAK ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

Horrenbestez, ordenantzaren testua proposamen honen eranskinean jasotako baldintzetan idatziko da.

BIGARRENA.- Behin betiko onartzen denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez.

HIRUGARRENA.- Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren lehen adierazitako 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau, ukitutako ordenantza fiskalaren bertsio berriarekin batera, jendaurrean erakutsiko da udaletxe honetako

3. Eliminar la tasa de "Estancias temporales".

4. Modificar el artículo 9 de la ordenanza, de forma que la "especial garantía para tasas devengadas e impagadas por insuficiencia de medios" se aplique únicamente al servicio de asistencia y estancia, quedando fuera el servicio de atención diurna y el resto de las tasas.

5. Establecer el método de cálculo de la renta familiar estandarizada mensual.

6. Modificar el título de la ordenanza, que pasa a denominarse ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR LOS SERVICIOS PRESTADOS EN LA RESIDENCIA MUNICIPAL DEL SAGRADO CORAZÓN.

En consecuencia el texto de la ordenanza queda redactado en los términos del anexo a esta propuesta.

SEGUNDO.- Dicho texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

TERCERO.- De conformidad con lo dispuesto en el citado art. 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, el presente acuerdo provisional, junto con la nueva redacción de la Ordenanza Fiscal afectada, se expondrá al público en el tablón de anuncios de este

iragarki-taulan, 30 egun baliodunez. Horrela, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ahal izango dituzte.

Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

LAUGARRENA.- Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere. Azken iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da epea zenbatzen.

CUARTO.- Dicha exposición al público se anunciará en el B.O.B, publicándose además anuncios de la misma en uno de los diarios de mayor difusión, y comenzará a contar su plazo a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la publicación del último anuncio.

BOSGARRENA.- Erreklamaziorik ez aurkeztekotan, erabakia, ordura arte behin-behinekoa, behin betikotzat joko da. Horretarako ez da beharrezkoa izango osoko bilkuraren erabakia.

QUINTO.- En el caso de que no se presenten reclamaciones se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.

**214.- ATEZAIN-KATEGORIAN 12 LANPOSTU ERALDATZEA.**

**214.- TRANSFORMACIÓN DE 12 PUESTOS DE TRABAJO EN LA CATEGORÍA DE CONSERJES.**

Proposamena irakurri ondoren, Paula Amievak hartu du hitza. Jakinarazi du GUK taldearen eztabaidagai nagusia gobernu-taldeko langileen politika dela. Ibilbide profesionalik eta barne-igoerarik ez izatea kritikatu dute, eta hainbat proposamenen aurka bozkatu dute. Udaleko Langileria arduraduna den zinegotziak ukatu du barne-igoerarik ez egotea, eta adierazi du lanpostuetarako sarbidea zabaltzean talde bati baino gehiagori egiten zaiola barne-igoera. Irizpide hori ezeztatu du Langileria arduradun teknikariak, adierazitako puntua jasotzen duen proposamenean. Langileria arduradunak egindako proposamena den txostenak, gainera, erakusten du ordainsari osagarriak alda daitezkeela, heltzen ez den lanpostuen balorazioari itxaroten ibili barik. Jakitera eman du berriki emandako epaitzak adierazi

Tras dar lectura a la propuesta interviene Paula Amieva que indica que uno de los caballos de batalla de GUK es la política de personal del equipo de gobierno. Han sido críticos con la falta de carrera profesional y promoción interna y han votado en contra de diversas propuestas. La inexistencia de promoción interna ha sido negada por el concejal responsable de Personal del ayuntamiento que considera que con la apertura del acceso a los puestos a más de un grupo se realiza la promoción interna, criterio que ha sido contradicho por el responsable técnico de Personal en la propuesta que sustenta este punto. El informe, propuesta del responsable de Personal, además demuestra que es posible modificar las retribuciones complementarias sin esperar a una valoración de puestos de trabajo, que no termina de llegar. Indica

duela ez dagoela aitzakiarik Euskaltegiko lanpostuen balorazioaren gaia Kultur Etxean jorratzeko. Halaber, aintzat hartuta Langileria arduradun teknikoaren arabera berariazko osagarriak alda daitezkeela lanpostuen balorazio orokorrik gabe, irizpide hori Euskaltegiko langileei aplikatu ahal zaie.

que el fallo judicial reciente manifiesta que no hay excusa para que puedan tratarse la cuestión de la valoración de puestos de trabajo del Euskaltegi en el Aula de Cultura, además teniendo en cuenta que según el responsable técnico de Personal, cabe modificar los complementos específicos sin la valoración de puestos de trabajo general, criterio que se podía aplicar al personal del Euskaltegi.

Proposamena bozkatu eta emaitza hau egon da: aldeko 11 boto (EAJ eta PSE-EE) eta 10 abstentzio (PP, GUK, Ciudadanos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor, PNV, PSE-EE; 10 abstenciones, PP, GUK, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

LEHENENGOA.- Lanpostu-zerrendako lanpostu hauek atezain-kategoriako lanpostu bihurtzea, honako baldintza hauekin:

Lanpostu-mailako osagarria eta berariazko osagarria atezain-kategorian dagoen beste horniduraren berdinak dira (LPZ 332).

Iraungi beharreko kalifikazioa kenduko da 6828. eta 80. lanpostuetatik.

Esleitutako hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-data mantenduko dira.

B gidabaimena eskatuko zaie lanpostu hiruri.

Berriz ere atxikiko dira 7085.,75., 76., 77., 6628., 395. eta 297. lanpostuetako lantokiak.

Lanpostu guztiak Juridiko-Administratibo arloko atezaintza unitateari atxikitzen dira.

PRIMERO.- Transformar los siguientes puestos de la Relación de Puestos de Trabajo, a la categoría de Conserje con las siguientes características:

El complemento de destino y el Complemento Específico es el mismo que la otra dotación ya existente de la categoría de Conserje (COD 332).

Se suprime la calificación de "a Extinguir" de los puestos 6828 y 80.

Se mantienen los perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad asignadas.

Se exige el carné B a tres de los puestos de trabajo.

Se readscriben los centros de trabajo de los puestos 7085, 75, 76, 77, 6628, 395 y 297.

Se adscriben todos los puestos a la unidad de conserjería del Área Jurídico-Administrativa

| | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **ATEZAINA**<br>CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 12594,34 | 2 | 1/1/2003 | **Eskola-ziurtagiria** | **B gidabaimena** | | **Etxe Sorgindua**<br>Casa Encantada |

| | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 297 | | | | | | | | | | | | Certificado Escolaridad | Carné B | | |
| 326 | **ATEZAINA** CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 16491 | 2 | 1/1/2003 | **Eskola-ziurtagiria** Certificado Escolaridad | **PROTOKOLOA** PROTOCOLO | | **Urgull//Getxoko Udaleko administrazio-bulegoak** Dependencias administrativa ayto.Getxo |
| 74 | **ATEZAINA** CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 12594,34 | 2 | 1/1/2003 | **Eskola-ziurtagiria** Certificado Escolaridad | | | **Udaletxea** Casa Consistorial |
| 6628 | **ATEZAINA** CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 12594,34 | 2 | 31/12/2007 | **Eskola-ziurtagiria** Certificado Escolaridad | | | **Udaletxea** Casa Consistorial |
| 80 | **ATEZAINA** CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 12594,34 | 2 | 31/12/1993 | **Eskola-ziurtagiria** Certificado Escolaridad | | | **Udaletxea** Casa Consistorial |
| 6961 | **ATEZAINA** CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 12594,34 | 2 | | **Eskola-ziurtagiria** Certificado Escolaridad | **B gidabaimena** Carné B | | **Santa Klara Jauregia** Palacio Santa Clara |
| 81 | **ATEZAINA** CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 12594,34 | 2 | 31/12/2005 | **Eskola-ziurtagiria** Certificado Escolaridad | | | **Santa Klara Jauregia** Palacio Santa Clara |
| 395 | **ATEZAINA** CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 12594,34 | 2 | 1/1/2003 | **Eskola-ziurtagiria** Certificado Escolaridad | | | **Elkartegi** |
| 7085 | **ATEZAINA** CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 12594,34 | 2 | 1/12003 | **Eskola-ziurtagiria** Certificado Escolaridad | **B gidabaimena** Carné B | | **Udaletxea** Casa Consistorial |
| 75 | **ATEZAINA** CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 13315 | 2 | 31/12/2004 | **Eskola-ziurtagiria** Certificado Escolaridad | **TXANDAKA** TURNOS | | **Romoko Kultur Etxea** |
| 76 | **ATEZAINA** CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 13315 | 2 | 31/12/2004 | **Eskola-ziurtagiria** Certificado Escolaridad | **TXANDAKA** TURNOS | | **Romoko Kultur Etxea** |
| 77 | **ATEZAINA** CONSERJE | N | FC | AG | CO | AGE | AP | 9 | 13315 | 2 | 1/1/2003 | **Eskola-ziurtagiria** Certificado Escolaridad | **TXANDAKA** TURNOS | | **Romoko Kultur Etxea** |

Aldaketaren azalpen-memoria erantsi da. Behar adinako aurrekontu-hornidura lortuko da 6630. lanpostua kenduz eta 7085. lanpostua aldatuz.

Se adjunta Memoria explicativa de la modificación. La suficiente dotación presupuestaria se consigue con la transformación del puesto 7805 y la extinción del puesto 6630.

BIGARRENA.- Alkateari eskumena eman zaio, bere karguaz baliatuz nahi beste neurri hartzeko, erabaki hau eraginkortasunez bete dadin.

SEGUNDO.- Se faculta al Alcalde a fin de que en el ejercicio de su cargo pueda adoptar cuantas medidas resulten necesarias para el cumplimiento efectivo del presente Acuerdo.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau BAOn argitaratuko da, jakitera emateko.

TERCERO.- El presente acuerdo será publicado en el BOB, para general conocimiento.

**215.- KONPROMISOKO KREDITUAK ALDATZEA EGITEA,**

**215.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS DE COMPROMISO**

**2018, 2019 ETA 2020KO EKITALDIETARAKO, MANUEL GAINZA PARKINGAREN ETA ALGORTA ETORBIDEKO URBANIZAZIOAREN 2. FASEAREN PROIEKTUEI DAGOZKIENAK.**

Proposamena irakurri ondoren, Joseba Arregik hartu du hitza; proposamen honen eta hurrengoaren harira (lotuta daude) gobernu-taldeak PPrekin hartu duen erabakia azaldu du, Algortako zirkulazioari eta mugikortasunari buruzkoa. Hala, gogorarazi du lau jarduketa jaso zirela bertan, jarraian jakinaraziko dituenak. Horietariko bat aparkaleku bat eraikitzea zen, eta aurreikusi zen udalak 2,7 milioi euroko ekarpena egitea horretarako. Proposamena bat dator egiteke dauden jarduketekin, epe eta formari dagokienez, 2018. urtean Algortako Etorbideko proiektuaren zati bat lizitatu ahal izateko, baita aparkalekuko obrak hasteko ere. Hori guztia obra publikoaren ohiko kontratua baliatuz; horrela, egikaritze-epeak aurreratuko dira eta aparkalekua ustiatzeari dagokionez etorkizunean kudeaketa-gaitasun handiagoa izatea ahalbidetuko du. Proposamenak onetsitakoan egin beharreko jarduketak zehaztuz amaitu du.

Eduardo Andradek jakinarazi du alderdi popularrak proposamena babestu egingo duela, gobernu-taldearekin hartutako erabakiaren zati baita. Erabaki horrek Algortako erdigunea birmoldatuko duen obrarik handiena dakar. Obraren lehenengo fasearen burutzapenak bizilagunei eragin dizkien arazoak kritikatu ditu. Halaber, adierazi du Sarrikobason egindako eraispenak ere hartzen dituela barne proposamenak; horrek inguru hori eraberritzea ahalbidetuko

**PARA LOS EJERCICIOS 2018, 2019 Y 2020 CORRESPONDIENTES A LOS PROYECTOS PARKING MANUEL GAINZA Y URBANIZACIÓN AVENIDA DE ALGORTA (2ª FASE).**

Tras dar lectura a la propuesta interviene Joseba Arregi para manifestar que sobre esta propuesta y la siguiente, que van relacionadas, explica el acuerdo del equipo de gobierno con el PP sobre el tráfico y movilidad en Algorta, recordando que en el mismo se encontraban cuatro actuaciones, que pasa a detallar. Una de ellas era la construcción de un parking, en el que se preveía la aportación municipal de 2,7 millones de euros. La propuesta ajusta las actuaciones pendientes tanto en tiempo como en forma para poder el 2018 licitar una parte del proyecto de Agortako Etorbidea y también el inicio de las obras del parking, todo ello bajo la figura de un contrato normal de obra pública, buscando con ello adelantar los tiempos de ejecución y dando a futuro más capacidad de gestión del ayuntamiento cara a la explotación del parking. Finaliza detallando las actuaciones a realizar una vez aprobadas las propuestas.

Eduardo Andrade manifiesta que el grupo popular va a apoyar la propuesta porque es parte del acuerdo que alcanzaron con el equipo de gobierno, acuerdo que va a suponer la mayor obra de remodelación del centro de Algorta. Critica los problemas que está generando a los vecinos la ejecución de la primera fase de la obra. Manifiesta que la propuesta también incluye los derribos en Sarrikobaso, lo que va a posibilitar regenerar dicho entorno. Solicita al equipo de gobierno que el

du. Gobernu-taldeari eskatu dio aparkaleku berria aukera posible guztiak eskaintzeko aukerarekin egiteko, hala nola txandakakoa izatea, egoiliarrei saltzeko aukerarekin, alokairu sozialekoa, etab.

nuevo parking se haga con la posibilidad de ofertar todas las opciones posibles como son la rotación, venta a residentes, alquier social, etc.

Enrique Pradak jakinarazi du GUK taldeak ez zuela konpromiso-kreditua babestu eta proposamen hori ere ez dutela babestuko. GUK mugikortasunaren nahiz jasangarritasunaren alde dago, eta ez dago ados interes orokorreko proiektu horiek modu irekian eta herritarren parte-hartzearekin ez lantzearekin. Erabakiak hartzeko modua kritikatu du nagusiki. Jakinarazi du proiektuak aparkalekuko plazak kendu eta ordaindu beharreko aparkaleku bategatik ordeztuko direla; alabaina, ez litzateke Algortako zirkulazioaren arazoa konponduko eta, gainera, ez da itxaron hiri-mugikortasun jasangarriaren plana amaitzera. Hala, kritikatu da horri bizkarra emanaz egitea hizpide dugun proiektu garrantzitsua, eta Algortako zirkulazioaren kolapsora hel daitekeela dioten azterlanetan oinarritzea soilik.

Enrique Prada indica que GUK en su momento no apoyó el crédito de compromiso y no apoyarán tampoco esta propuesta. GUK está por la movilidad y la sostenibilidad y no están de acuerdo que estos proyectos de interés general no se hayan trabajado de forma abierta y con participación también de la ciudadanía. Critica fundamentalmente la forma de adoptar las decisiones. Manifiesta que el proyecto suprime plazas de aparcamiento y se sustituyen por un parking de pago, tampoco ven la solución al tráfico en Algorta y además no se ha esperado a la finalización del plan de movilidad urbana sostenible, criticando que un proyecto tan impotante se haga a espaldas del mismo y que se base únicamente en estudios que indican que se puede llegar al colapso circulatorio en Algorta.

Proposamena bozkatu eta emaitza hau egon da: aldeko 16 boto (EAJ, PP eta PSE-EE), kontrako 4 (GUK) eta abstentzio 1 (Ciudadanos).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, 4 votos en contra, GUK; 1 abstención, Ciudadanos.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Kontu hartzaile nagusiaren txostena ikusi da. Bertan ziurtatzen du ekitaldi bakoitzeko konpromiso-kredituen zenbateko pilatua ez dela handiagoa likidatu den azken ekitaldiko baliabide

Visto el informe de la Interventora General acreditando que el importe acumulado de los créditos de compromiso de cada ejercicio, no rebasa el 25% de los recursos ordinarios

arrunten % 25a baino. Beraz, kontuan izanik Bizkaiko lurralde historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 22. artikuluan eta Aurrekontu gauzapeneko udal arauaren 8. artikuluan xedatutakoa, Udalbatzari proposatzen zaio Manuel Gainza parkingaren eta Algorta etorbidearen urbanizazioaren 2. fasearen proiektuetarako indarrean dauden konpromiso-kredituak ondoko hauekin ordeztea:

del último ejercicio liquidado y teniendo en cuenta lo que disponen el artículo 22 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 8 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria, se propone al Pleno la sustitución de los créditos de compromiso vigentes para los proyectos Parking Manuel Gainza y Urbanización Avda. Algorta (2ª fase) por los siguientes:

| Proiektua<br>Proyecto | Partida | Deskribapena<br>Descripción | 2018 | 2019 | 2020 | Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Manuel Gainza parkeko lurpeko aparkalekua<br>Aparcamiento subterráneo Parque Manuel Gainza | 004/1530/6010000 | Infraestructura y urbanización<br>Azpiegitura eta urbanizazioa | 630.000,00 | 1.125.000 | 1.000.000 | 2.755.000 |
| Algorta etorbidearen urbanizazioa (2. fasea)<br>Urbanización Avda. de Algorta (2ª fase) | 004/1530/6010000 | Infraestructura y urbanización<br>Azpiegitura eta urbanizazioa | 550.000,00 | 75.000 | 200.000 | 825.000 |
| Guztira / Total | | | 1.180.000 | 1.200.000 | 1.200.000 | 3.580.000 |

## 216.- GEHIGARRIZKO KREDITUA EMATEA ONESTEA: MANUEL GAINZA PARKEKO LURPEKO APARKALEKU BATEKO ERAIKUNTZEKO.

## 216.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA CONSTRUCCIÓN DE UN APARCAMIENTO SUBTERRÁNEO EN EL PARQUE MANUEL GAINZA.

Proposamena irakurri ondoren, bozkatu egin da, eta honako emaitza hau irten da: aldeko 17 boto (EAJ, PP, PSE-EE, Ciudadanos) eta 4 abstentzio (GUK).

Tras darse lectura a la propuesta se somete a votación obteniendo el siguiente resultado: 17 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 4 abstenciones, GUK.

Ondorioz, Ogasun, Kontu, Ekonomia-Sustapen, Giza Baliabide, Gazteria eta Euskarako Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara, por mayoría se acordó:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2017/56 zenbatekoa 645.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua

Aprobar el Expediente número 2017/56 e Crédito Adicional, por importe de 645.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

dagoena:

## Gastuak / Gastos:

| Partida | **Izendapena** Denominación | **Zenbatekoa** Importe en € |
|---|---|---|
| 004/1530/6010000 | Azpiegitura eta Hirigintza (Bide-publikoak) Infraestructura y Urbanización (Vías públicas) | 645.000,00 |
| Guztira Total | | 645.000,00 |

## Finantzaketa / Financiación

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina, gastu orokorretarako Remanente de tesorería para gastos generales | 645.000,00 |

Enrique Pradak GUK taldearen abstentzioa justifikatu du adieraziz proposamenak barne hartzen duela publiko bihurtuko den aparkalekuaren kudeaketa, eta horregatik abstenitu dira kontra bozkatu ordez.

Enrique Prada justifica la abstención de GUK en que la propuesta recoge la gestión del parking que va a pasar a ser pública, razón por la cual en lugar de oponerse se abstienen.

**217.- GETXOKO UDALEKO ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEA. 2016-2019 ALDIA.**

**217.- MODIFICACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2016-2019 DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS DEPENDIENTES.**

Proposamena irakurri ostean, Santiago Sainz jaunak hartu du hitza; diru-laguntzen plan estrategikoari dagokionez aditzera eman du presoak bisitatzeko diru-laguntzak jasotzen direla bertan eta ez dagoela ados horrekin, uste baitu ez dela ez etikoa, ez morala. Horrenbestez, proposamenaren aurka bozkatuko dute.

Tras dar lectura a la propuesta interviene Santiago Sainz para manifestar que respecto al plan estratégico de subvenciones Ciudadanos ha manifestado de manera reiterada que no está de acuerdo que en el mismo se contemplen ayudas para visitar a presos, ya que eso no les parece ni ético ni moral, por lo que votarán en contra de la propuesta.

Eduardo Andrade kexatu da plan

Eduardo Andrade lamenta que la

estrategikoaren aldaketak ez duelako xede gisa ezarri presoen senideentzako diru-laguntzak kentzea, eta gobernu-taldeari eskatu dio gai hori alda dezala plan estrategikoan.

Enrique Olasok jakinarazi du GUK taldeak hiru arrisku ikusten dituela proposamenean, jarraian zehaztuko direnak. Lehenengoa: Getxo Kirolakeko artezkaritza-kontseiluan aurkeztu ez izana; dokumentaziotik ondorioztatzen da erakunde horretako gerenteak, aipatutako erakundearen izenean, bultzatu duela proposamena, baina azken artezkaritza-kontseiluan ez zen horren gaineko ezer adierazi. Bigarrena: ez du zentzurik plan estrategikoa aldatzea laguntza puntual bat emateko xedez, kontraesanean egongo bailitzateke Diru-laguntzen Lege Orokorrean plan estrategikoaren helburu gisa zehaztutakoarekin; ondoren, aipatutako legearen zati bat irakurri du. Hirugarrena: nahierarako erabakiak hartzeko arriskua, diru-laguntza izendunak baitira. Jakitera eman du GUK taldeak emakumezkoen kirola eta arrauna babesten dituela, baina horregatik ez dagoela zertan nahierara izendatu diru-laguntzen onuradunak. Proposamen gisa, hauxe planteatu dute: tokiko erakunde autonomoen artezkaritza-kontseiluak sendotzea; diru-laguntzen plan estrategikoa egitea, helburuetatik ekintzetara (eta ez alderantziz), eta apurka-apurka murriztea diru-laguntza izendunak.

Alvaro González jaunak esan du Osoko Bilkuraren eskumena dela plan estrategikoa; hori dela eta, ez zaio Getxo Kirolaken artezkaritza-kontseiluari aurkeztu eta diru-laguntza ematen denean jakinaraziko zaio. Aditzera eman du GUK taldeak

modificación del plan estratégico no tenga como objeto suprimir las ayudas a familiares de presos y pide al equipo de gobierno que modifique el plan estratégico en dicho sentido.

Enrique Olaso indica que desde GUK ven tres peligros en la propuesta, el primero de ellos, que no se haya presentado en el Consejo Rector de Getxo Kirolak, y de la documentación se deduce que la propuesta la impulsa el gerente de dicho organismo actuando en nombre de dicho organismo y pese a ello en el último Consejo Rector de nada de ello se informó. El segundo que no tiene sentido modificar el plan estratégico para conceder una ayuda puntual ya que ello, además, contradice a lo que la Ley General de Subvenciones define como finalidad del plan estratégico, dando lectura a una parte de la citada ley. Y el tercero el riesgo de adoptar decisiones a dedo al tratarse de subvenciones nominativas. Indica que GUK apoya el deporte femenino y el remo pero que ello no significa que pueda subvencionar a dedo. Como propuesta plantean reforzar los consejos rectores de los organismos autónomos locales, realizar el plan estratégico de subvenciones desde los objetivos a las acciones y no a la inversa y reducir paulatinamente las subvenciones nominativas.

Alvaro González manifiesta que el plan estratégico es una competencia del Pleno y por eso no se ha llevado al Consejo Rector de Getxo Kirolak, que se dará cuenta cuando se asigne la subvención. Indica que GUK critica cómo realizar el plan estratégico pero

kritikatu duela plan estrategikoa egiteko modua baina ez duela hori egiteko beste modurik azaldu. Amaitzeko, jakinarazi du zehaztapen teknikoak adierazi behar direla bertan, ondoren plan estrategikoaren garapena egingo dutenak baitira. Diru-laguntza izendunei dagokienez, bere ustez ez dira nahierara ematen, Osoko Bilkuraren eskumenekoak baitira eta gehiengoz erabakitzen baitira, justifikazio tekniko zein politikoak egin ondoren.

no explica cómo se puede formular de otra manera. Finaliza indicando que en el mismo debe distinguirse las determinaciones de contenido técnico, que son las que luego hacen el desarrollo del plan estratégico. En relación a las subvenciones nominativas considera que no son otorgadas a dedo ya que son de competencia plenaria y se adoptan por los correspondientes acuerdos mayoritarios, previas justificaciones técnicas y políticas.

Enrique Olasok berretsi du proposamenean hauxe jaso dela: Getxo Kirolak erakundeak egin eta gerenteak sinatu duela. Horrela, badirudi Getxo Kirolak erakundeak erabaki bat hartu duela aurretik, baina ez da horrelakorik gertatu eta haien ustez erakunde horretako artezkaritza-kontseiluak hartu behar izango luke aurretiko erabakia. Berretsi du plan estrategikoek helburuak zehaztu behar dituztela eta ondoren sortuko direla helburu horietara bideratutako ekintzak.

Enrique Olaso se ratifica en que en la propuesta figura que la realiza Getxo Kirolak con la firma del gerente y eso hace suponer que existe una decisión previa de Getxo Kirolak pero no ha sido así y ellos estiman que debiera de haber habido una decisión previa del Consejo Rector de dicho organismo. Se ratifica en que los planes estratégicos deben determinar los objetivos y luego posteriormente surgirán las acciones que se orientan hacia esos objetivos.

Inazio Uriartek adierazi du GUK taldeak proposamena eta horren edukia nahastu dituela. Izan ere, nabarmendu du Osoko Bilkurari egindako proposamena ogasunaren informazio-batzordearen ondoriozkoa dela; hortaz, plan estrategikoaren aldaketa onets dezakeen bakarra Osoko Bilkura da. Halaber, Osoko Bilkurak diru-laguntza izendunak esleitzeko ahalmena duela jakinarazi du; horrenbestez, badirudi GUK taldea udala kirol- eta kultura-elkarteekin elkarlanean aritzearen aurka dagoela. Azkenik, jakinarazi du GUK taldeak emandako arrazoi guztiek gaia nahasten dutela baina ez dutela zehatza eta erabatekoa den ezer planteatu.

Inazio Uriarte manifiesta que GUK descoloca la propuesta y su contenido ya que recalca que la propuesta al Pleno vine a partir de la comisión informativa de Hacienda y es el Pleno el único que puede aprobar la modificación del plan estratégico. Indica también que el pleno tiene capacidad de asignar subvenciones nominativas por lo que parece que GUK se opone a que el ayuntamiento colabore con las asociaciones culturales y deportivas. Finaliza indicando que todos los argumentos de GUK son para enredar pero no para plantear cosas ciertas y concluyentes.

